Bitsa eskuetan

Miren Agur Meabe

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2010 Miren Agur Meabe
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2010eko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Asun Landa Mendiberi

LA VIE EN ROSE

Edaten dut etxe suntsituagatik,
nire bizitza izugarriagatik,
gu bion arteko bakardadeagatik,
eta edaten dut zugatik.
ANNA AKHMATOVA

DEFINIZIOA

Emakume kaierduna naiz,
badakizu nor:
hondartza gurmatsuan zure inizialak
idatzi nahi lituzkeena;
edo hobeto, telefono-zenbaki bat
zure autoaren kristalean.
Baina hau ez da film frantsesa,
ezta kolonia-irargarki bat ere.

Ez naiz Wendy.
Batzuetan hegan egin arren
eta peterpanekin jolastea atsegin.
Tipula xehatzeko orduan ere,
badakit leihotik begiratzen.

Emakume kapeladuna naiz,
badakizu nor:
deskribagaitz hori,
Chagallen pinturetan nahi duena bizi;
edo bestela, Silvioren abestietan hil.

Baina hau ez da opera bat,
ezta nobela aparteko baten atala ere.

Amodio koldarretatik ihesi nabil
lapurtutako moto batean.
Bateria jotzen dut ilunpean.

ZISNEAREN KANTUA

Zenbat balio du gutxi jakin nahi eta
ezer eskatzen ez duen emakume batek?

Esku-ahurrak gora begira ditu,
eta zeruak adurra askatzen du, errukior.

Hileko odolari, iraganaren akronimo horri,
seme nerabearen tristura elkartu zaio.

Kantuan ari da zisnea, mezurik sentituena
hormonen ilunabarrean.

Teilapeetan, amodioak gogaitu eta elikaturiko
bizitzak,
bodegoi sepia eta berdeak, bakea eta gerra lore
artean.

Hain da hauskorra dena, hain erraza laburbiltzen.
Edukia eta edukiontzia, naufragio bakoitzaren
markak.

URRUNAGO IGERI

Ez du balio men egiterik.
Garaia da esateko.

Hona hemen nire ile gorria,
mamu tematien kukuleku.

Behatu nire begiei,
bata itsua, bestea hautsez josia.

Hauxe da nire mihia,
partez zigortu ezina, partez jada galdua.

Horra nire eskuak,
adabaki-jartzaile, iruzurren predikari.

Hemen da bularra,
argitan erdi bi eginik, eta hain ilun.

Ikusi gerria eta sabela,
urdinduraren ehizaki bigun zimur.

Izterrak, belaunak, orkatilak, oinak,
biki tristeen gisako, barbaroen erasopean.

Andre mamitsua nauzu:
euskal poesiaren larrosa.

Txute bat zainetan da nire usaina:
zientoka liztor datozkit hurrupan.

Ispiluak ditut azalean:
nire trakeak badu izan bere mintzoa.

Ez du balio fedea galtzerik.
Zehatz jo du, tai gabe, urrunago igeri egiteko
orduak.

GAZA GRISA

Lanbroaren beste aldean idatzirik dagoen
halabehar itsua baizik ez da bizitza.

Xabier Lete

Oraintxe da bizitza biraka aritzea,
urari, bisutsari aurrez aurre behatzea,
gau minean mekanoak osatu eta apurtzea.
Oraintxe dator errezela astintzea,
bisturiak zorroztea lainoa zabaltzeko,
itzaletan galduen oihalak tolestea.
Oraintxe dut izena katilu eta belaki,
zure keinu bakoitza merkurioa da tantaka,
eta gure zera hau... zera, itsasora jaustear den
bonbaren harridura.
Oraintxe baldin badit armiarma-sare grisak
burmuin grisa endredatu,
oraintxe gristu bazait baginako mukia,
eta hezurrak gristu.
Oraintxe da kea, oraintxe zubiak,
oraintxe usoen lumak eta eulien hegalak.

Oraintxe koltxoia zizarez josia.
Oraintxe tantaka oinazpietatik itogin zabalak
eta baratze bat pizten urratsen barruan.
Oraintxe ari naiz neurtzen metalen pisua,
egarriaren bihotza, erlojuen boza.
Oraintxe ni ilgora, sarraila zurkaitza,
argazkien errai, zilar erreen atoi,
otsemearen ulu, harearen ispilu.
Oraintxe da hitza zaurien lotailu.
Oraintxe bizitza nire gaza grisa.

LOCUS AMOENUS

Bakardadea bera ere bada ekintza.
Zergatik ekin?

VLADIMIR HOLAN

Maskor-kixkirriak, urtero lez,
oldean heldu dira hondartzara.
Posible dirudi bizitza sintesian ikustea
lubakia hazi bitartean.

Txakur bat olatuei zaunkaka.
Saski batetik laranja bat pirritan.
Posible dirudi oihalak goratzea
publikoari itxaron barik.

Urriaren hogeita bosta, zapatua.
Semea bere kabuz hirian.
Posible dirudi gauzen ordena
esku bakarrarekin atontzea.

Hustasun hau ez da besterik bakoa, ez da kasuala.

Ai, lagunok! Ardo-kopa altxatzen dut
baratzeko hormei begira
eta kardu-belarra bezain arina naiz sentitzen.
Erreturak errautsak utzi ditu lurrean,
haizeak bekokira dakarkidan polen arrea.

Bitsa, ez dut besterik eskuetan.

Sagarrondoaren adarrak krak egiten duenean
aingeru hautsien barrearen soinuaz,
sinesten dut posible dela oraindik ere
zentimetroren bat haztea,
panpinekin berbetan segitzea
eta ahaztea.

ITUNA

etzan gaitezen zure ohe margul horretan
argiaren soketan sorgin-orratzak bezala
jarri besoa nire gerrian
eskudel bat behar dut arroilara begiratzeko
ez daukat hogei urte
ez nuke edonon topako berbalagunik
eta garestiegia da maitasuna
azaldu gure aritmetikak bere legeak dituela
galdetu zergatik hazi naizen hainbeste eta hain urrun
nire izena gosaldu gabe bizi izan bazara edo
euria nire klitorian berriz ikusi barik edo
olatu honen falta zure oholpean igarri ez arren
eman zure begiak argizaiola bat
saiak putzuaren ertzetik uxatzeko
har nazazu zure alaba banintz lez
kontsola nazazu mundutik

PIZTUERA

Amets faltsutik jalgi, kredo bat izanik,
jatorrizko zindotasunari uko egin.

Hausterrea xurgatzeko birika mekanikoekin,
izenentzat zuloa egiten dakiten eskuekin.

Bizitza osorako txaloz jantzita,
andre eta jabe, loto-loreak hankartean, edo etanola.

Mesiasik gabe abiatu, orri-marka barik,
erreguzko keinuen zentzua kamustuta.

Aho eta guzti jaio, eta haginka egin, grausk eta
koska.
Tu egin, putz egin, juramentuka, hostia.

Izana urratu, zaborrak batu,
dena bere harian eta zehatz-mehatz asmatu.

Lurrez aldatzeko zain dagoen landare izateari utzi.
Ura aurkitu.

URAREN ESTRATAK

ITURBURUA

Ura, lehen ispilua.
Dardara bat ur beltzean.
Ilargiak pa uraren haragiari:
ispiluaren metamorfosia.
Itzalak ihesi; erloju bat jaio da.
Ama ura, menstruazio-odola.

UR-JAUZIA

Maitatzeko dauden era guztietatik,
zenbakaitzak eta bitxiak denak,
hauxe hautatzen dut: orakulurik ez duena,
ura.

ARROILA

Hodeia, izotza, xirripa, turrusta, olatua, lanbroa,
istila.
Uraren hizkuntza.

Onddoa, ihia, goroldioa, iratzea, lorea, igebelarra, alga.
Uraren hizkimizkia.

Larba, igela, txoria, inurria, otsoa, marraxoa, gu.
Uraren ideia.

Odola, gernua, hazia, amniosa, izerdia, adurra, malkoa.
Uraren hieroglifoa.

UHASTEGIA

Nire malkoak gozo zaizkidala oinaztargia harpe barrutik eztia den heinean. Ez dudala behar inor nire burua aztertu eta zorriak kentzeko. Nire umontzia beti ez dagoela poesiarako prest.

URMAELA

Batzuetan, munduko denbora guztia sar liteke leopardo-sosten batean.

URLOA

Ura gorputzean, mihise mehea.
Neure mandorla.

UBERA

Amodioaren jokoan jokatzea:
ur ertzean etzatea, beso betean;
barre egitea, begiak itxita.
Maitatzea, hitz hori ahoskatzeke.

LURPEKO URAK

Ahanzturaren dzingoa neurtzeko, laburregi ditut besoak. Hortik lo-belarra erein beharra zuloetan, begi guztiak pitxertxoak bailiran: belarriak, ahoa, sudur-hobiak, uzkia. Zilborra libre utzita, argi-ontzi hutsa. Ezin da zulo hori estali, ama bazara: zilbor-orbainean joka iratzartzen zaitu bizitzak.

URTEGIA

Urak neure izenez hots egiten dit,
bere bularrak eskaintzen.

Arantza bat da egarri hau.

Nire kriseiluarekin ahotsak argitzen ditut;
nire baratzean oroimena erretratatzen.
Ez dira uretan idaztekoak nire hitzak.

Ura dut lagun bataio honetan:
uretan sartzen ari naiz bizia,
uretan sartzen dihardut bizitza.

Urari nire egarria.

IBAIADARRA

Handiegiak dira zure minak, denak nire gerrian urtzeko.
Horregatik idazten dut boligrafoa arraun bat balitz lez, bidegurutze batetik erauzi berria.

UHARRITZA

Pultsua botatzea bizitzaren erdi biak banatzen dituen marraren gainean. Eskuko frenoari oratuta. Mutur-uhala jantzita. Ordezko azazkalak itsatsita. Edo horixe eta horrela, edo amore ematea txoriez dakien ahots lodi bati. Apustu horretatik hilzorian ateratzen banaiz, poetak, eman niri opioa zazpi astean, otordu bat irailean nire baratzean nata eta intxaurrez, zuei sms-ak bidaltzeko baimena: «Hegaberak batzen dira hondartzan egunsentian; halaxe lagun minen aldra bihotzen negu gorrian». Eta abar.

UHARANA

Zu, ezpainetan kilkerrak dakarzkidazun hori.

UHARTEA

Beldur bazara, begiratu zure uharteari:
ez du ezagutzen sarerik.

Harkaitzak aldarazten dituzte urek,
labirinto opakuak ere higitzen.

UHINA

Eskerrak ematen ditut. Gizon on baten lepoaren antza dauka udazken honek.

UHOBIA

Lanbroa zeharkatu, gaza harilkatu, hormarriak ahokatu, testuingurua berreratu: ura irauli.

PATTI SMITH RIMBAUDEKIN AMETSETAN

Patti Smith liluratu egin zen Rimbaudekin. Poema bat idatzi zion, amets bat, non aipatzen zituen Charleville eta Abisinia, soroak, ur-putzuak, zauri bat begian kristal batez egina, esku handiak, masail gorriztak, logela bat, begirada ustez axolagabeak. Arthur belauniko, negarrez, belaunetatik helduz Pattiri. Patti ohean etzanda, iletik helduz Arthurri. Sugarra dira ilea eta biloa, o Jesus! Orratzak atzamarrak, o Jesus! Zeurea naiz osorik.

Horraino poemaren laburpen badaezpadakoa. Eta horren harira, neure txanda.

Andre birloka naiz. Uztaila da, zapatu bazkalostea, neure baratzean, atea ertirekirik. Zozo-bikotea palmondoaren ezkatetan, moko laranjekin eltxo bila. Etzanda nago olanazko jarlekuan. Labandaren firfira. Ura ipini behar dut tea egiteko. Eskutik labain egin dit Pattiren poema-liburuak. Rimbauden antologia elebiduna Bilbon daukat. Hara, lagun hark oparitu zidan, otso-lanak egiten zituenak, nire urtebetetzean, eta horrexekin izorratu ninduen zeharo. Hain nengo-

en burbuila uherra bihurtua, punp egiteko irrikaz, hain nintzen jostura gaizki lotua, urratzeko desiraz. Halaxe agintzen zuen bizitzak orduan, esan dezagun, nahiz eta kontua ez den, inondik ere, batere xinplea, batere.

Marigorringoek kilimak egiten dizkidate bernetan, eta uraz pentsatzen dut, ahoa lehor. Hola, guapa, esan dit etorri denak. Ahots hori aiztoa da arrastirian, o Jesus! Gaixorik egon zara, printzesa, neuk prestatuko dut tea, masajea emango oinetan, sandaliak kentzen lagunduko, zu lasai, sirena ilegorria. Azukre epela bihurtu zait txistua. Ezin begirik ireki, indarge ni begi berdantzetan dzanga egiteko.

Hotzikara eragin dit koilaratxoak bular artean. Kikara beroan sartu ditu berak atzamarrak, intziri bat ito du. Ezpainetan ditut orain haren hatz luzeak. Zantar hori. Txupatu egiten dizkit belaunak bere lixazko mihiarekin. Mahaspasa eta ronezko izozkiak dituzu belaunak, Meibi, maybe, agian, Meabe, akaso. Goazen barrura, ez egin dar-dar. Ahotsarekin irentsi nau, galdua ni marraxoaren eztarrian.

Parasma-metxak hagetan, planeta burdinkarak erlojuetan, txori-hezurrak altzarietan.

Ez naiz beltzarana, ez naiz liraina, ez naiz argia, ez naiz gaztea, ez naiz ahalduna, ez naiz zangarra, ez naiz, ez naiz, ez naiz aingerua, ez naiz deabrua, ez naiz ezer ez bada bizi izan naizena, oroitzen dudana, eta neure izena, izan nahi dudana. Har ezazu buelta, Goikokaleko neska txiki hori, neuk sendatuko zaitut neure esku handiekin.

Marraxoaren bazka ipurmamiak. Egin dzast, dzast, dzast, eder hori, hortxe, eman, segi holantxe, plas, plas, plas. Martiri bat bezala ireki naiz erditik. Tarratada eta bitsa. Izerdiaren perladuria. Zeurea naiz osorik, aleluia. Neurea zara osorik, aleluia, o Jesus!

LA JOLIE FILLEREN AUTOMITOLOGIA

Maite ditut parentesiak, masail irriberen antzeko esparru kontrolatuak, etxera apur bat berandu iristea, paisaiaren iodozko kontrasteak.

Maite ditut zehaztasun zalantzagarria, deskribapen inozoak, arrisku baimendua, narritadura eta pixagura eragiten dituzten fosforeszentziak.

Txikitan, urrezko eskumuturreko bat utzi nion neska koxkor bati, berak zabu bat uztearen truke. Etxetik bidali ninduen amak gero, iruzurtiaren bila. Neskatoak ukatu egin zuen gure ituna. Agiraka egin zidatelako gogoratzen dut tratu gaizki egindako hura.

Beste behin —marea bizien sasoian, olatuen kipur horixkak harrapatua baitzuen hondartzaren okotza, zornezko sufle baten antzera—, neska berberak eta haren lagunek biluztu egin ninduten familietan jolasteko, neu nintzela-eta denen panpina. Olatu batek ipurdia busti zidan. Ur lohi hura eta mutiko atzeratu baten begirada gomutan ditudalako gomutatzen dut nire deslaitasuna. Gomutan, halaber, hotza eta lotsa.

Badihardut, beraz, negozio eskasak zenbatzen, kuleroak neuretzat gordetzen, ur nahasiak miatzen, iragana neure alde baliatzearren ezorduan jaikitzen. Otoitz egiten dut inoiz gal ez ditzadan torlojuak doitzeko behar ditudan hatzak.

Zenbat neskato bortxatu dituzte gaur Burundin? Zenbat mutiko hil dira azken minutuan Darfurren? Afganistango haur bat mintzo zait argazki batetik: «Une bat izan nintzen, ez besterik, mosaiko geometriko handian, tesela galkor bat, hain erlatiboa. Gero, dorreen ahoek nire itzala irentsi zuten, eta ez zen ezer gertatu. Amaren ahotsa entzun nuen nire izenaz erditzen, hormako arrakala bat bezala. Gaur egun lasaia da. Nire oinak zaborrontzi batean geratu ziren. Nire bizitza beste alanbrada bat da».

Hona hemen berriz bestelako hotza eta bestelako lotsa. Utz ditzadan bakean babesgabeak. Ez, ni ez naiz inor zuek nik ahotan hartzeko.

Au revoir, la jolie fille, à jamais, la petite, tout est dejà bien vu au temps des adieux. Ça va bien ce soir, hau ez da ezer. Erre ditut koltxoiak eta fakturak, argazkiak, pilulak eta postalak. Ça va bien ce soir, hau ez da ezer. C´est la vie en rose, zoriaren ferra, c´est la vie en rose, anfibioon gerra.

DEBEKUAZ

Mamuen adinean
debekatuta dago
mugarik gabe maitatzea
edo maitatua izatea.

JULIA BARELLA

Hori diozu, Julia? Eta zer diostazu
eskaileran gauez entzuten diren pausoez?
Badirudi beti dela norbait etxera heltzeko.
Debekatuta egon behar luke, arrazoi duzu,
ilintietara dzanga egitea
urte-giroen sukar hauskarak mendean bagaitu,
edo akaso geu bagara haren kolore, ez dakit.
Horma txikiko baratzea da gurea baina,
uzkurtu eta hedatu egiten dena,
arimaren tendoi, eguzkiaren legera.
Ortozik nago, zurtz, goroldioa orkatiletan gora,
kontzeptuen arkitektura zedarritu nahian,
oin-zolak zauri, hegal eta kaiola den baratzean.
Isiltasunak, fruta-arboletan lokartzen den argiak,

loreontzi zaharrek eta zure hitzek, laguna,
zure hitzek salbatzen naute zatika.
Ez dut inor maitatuko; ez nazala inork maita.
Mudaturik jada testura eta etiketa,
kuartzoaren distiran naiz naizena,
barrokismo hutsal bat, berbazko bitxien egia motza
mundua mende izateko moduan.
Esadazu, laguna, leizezuloen beldur ez zaren horrek,
nondik egiten zaion tira matazari,
bakartasunaren adatsari dunetaraino,
zuk, sinesten baduzu hobeto bizi zarela horrela,
zeure buruaren antsiaz, zeugan, zeuretzat eta zeure.
Zabalegiak elurtea eta bizimina koralezko zainetan,
igeltsuzko maskara gaur jangartzu honetan,
behin eta berriro langar ni,
eta gorpu ur ertzean, zutitzear.
Nik ezin, laguna, unibertsoak topatzen baititut
nire eskuetan inork utzitako adurretan,
hennazko kondairak.
Nik ezin, maitatzeke: anilezko tintura
sobera daukat mamuen adinean.

BESTEAK

Zer egingo diogu, ba, ez naiz perfektua.
Parkak dira politago eta argiago.

Esther Gimenez

Ez dut nahi izan Aurore Dupin, idazten jardun inork niretzat pianoa jo bitartean. Ez dut nahi Mesalinaren antzik, ezpaten andrearen zipitzik. Ez Magaren taxurik, eta Horaciorekin topo egin zubietan, ez dudalako nahi haur beragatik egin negar, haur beragatik egin barre. Ez dut izan nahi Teresa Calcuttakoa, maitatuz gurutze bat non iltzatu esku betihuts hauek bankuko kartillekin batera. Ez dut nahi Kareninaren antzik, trenbidean herioari turrit egin ezinik larrutan babesturik. Ez dut nahi bihurtu bi izpiritu korapilatu, otalurretan galapan, Catherine eta Heathcliff, eta patuari lotu. Ez dut nahi Saforen kutsurik, peploen azpian muztioa miazten edo labar beltzetan heriotza limurtzen. Ez dut nahi izan neskatxo mazala clair matin usaina, aitatxiren esaneko, zatoz, nire altzoan etzan, ipurdi guri horretan tas-tas egin diezazudan. Ez An-

botoko Mari, ez Nazareteko Maria, ez burezur bati eskainirik bizia, Magdalako Maria. Ez Emma Bovary, ez Borgiatar Lukrezia, ez Salome, ez Alizia, ez Albreteko Joana, ez Lilith, ez Diana, ez Medusa, ez neure ama, ez Sigrid Thulekoa, ez Miletoko Aspasia; ez Anne, ez Alfonsina, ez Sylvia eta ez Marina; ez Errusiako Katrina, ez Sienako Katalina; ez Ava, ezta ere Greta, ez Ingrid eta ez Gina. Ez Virgina Woolf, ez Flora Tristan, ez Simone de Beauvoir, ez Luxemburgtar Rosa... Denak distirantak, denak hain airosak... Ispilu eskerga horretan, panpoxa naiz islatzen, domino-fitxen antzo etengabe kokatzen: ni neu, aurpegi arrunta, papar naroa, zumearen udamina giharretan, ni, gauerdiko kikararen lurruna, uharte isila eta sakan ozena, neu, uneoro poeta, noizean behin jueza, sarri apostolua eta inoiz euskalgeisha.

ERRETRATUA

Batzuetan nahikoa oldoztu bako
ekandu ergela da bizirik segitzea.
Jose Luis Otamendi

harrabotsak konkortzen nau taberna honetan
urminak bilbatzen dit hitzezko hari bat garunetan
gabon aurrea gasteiz zazpi gradu zero azpitik
eskale bat blai diru eske
khol tanga piercing neskak
laster semeak ez dit parik eman nahiko
laster ez dut hilero hilekorik izango
misionera edo mesonera izan nahi nuen nik
bihotz handia edo titi handiak erakutsi
zeru-gangan nylonezko sarea gaua
akuaforte batean gatzatzera dator gristura
hitzez albaintzen zait hatsa zapietan
begiei atsedentzen uzteke iluntze axolagabe honetan

BIGARREN BIZITZA

Pentsatzen dut ate bat dela bakardadea.
MARINA AOIZ

Urteak igaro, kasik hogei, eta orduan ere
zure paparra egokitzen zitzaion nire bizkarrari
domeka goizetan erlojuak paretari so jartzean.

Salan franko haziak ziren iratzea eta afrikar
bioletak,
eta nire gerrian halaxe, eraztun bat gehiago urtero,
gure erregetza mundu honetakoa zen seinale.

Esaten nizun ahapeka, hain zintudan maite:
«Faltako banintz, bilatu, topa ezazu nor maitatu».
Hain ninduzun maite.

Gaur ez da zugan bazterrik asmo onez txukuntzeko;
nigan ere ez da erpinik bakea jar dezazun.
Zenbat lan galdu. Zenbat negar, antifazaren atzean.

Bizitza osorako altzariak aukeratu eta gero,
ezpalak berritzeko geratu ohi gara astero.
Kolore absolutuenaz ari gara, zertarakorik gabe.

Ezinezkoa da maitasuna ituntzea.
Tentazio handiegia kronikoki jokatzea:
umiliazioa onartzen kontzientziari irakastea.

Orain begiratu aurpegira bizitzari:
gure arteko tartean ez dago berba bat besterik.
Zu eta bion erdian da begiari muzin dagion begia.

Atera naiz isilean etxetik, lokatzetan utzirik
oinatzak,
giltzari odola dariola. Banoa, ea zertan den beste
airea:
bigarren azala, bigarren kodea.

Ikaraz jartzen nau ganbaran solte utzitako
memoriak.
Iragana sitsa dugu, urteak zenbatzen.
Requiem bat da etorkizuna, teoriak probatzen.

Zoriona aitortzeak ahitzen du arrangura.

HAMAZAZPI LERROTAN EZ ESATEKO ESKAERA

Esan hildura xarea hazi zaizula zuri ere,
Esan aztarrika ekiten diola egunsenti
bakoitzari,
Esan nahikoa dela, akitu egiten direla
bihotzak.

IÑIGO ARANBARRI

Ez dut entzun gura, ez, eta ez esan,
ez esan izena trukatu dudala, izana bestetu
dizudala,
bion kriseiluari neuk egin niola putz biotatik
aurrena,
eskumuturrak izarrez lotzen alferrik tematzen
naizela.

Ez esan imintzio hutsala dela betilore-bokazio hau,
kukuluan ostenduta azala gotortu zaidanik,
ez esan hezurraren itsura baztertu zaitudanik,
Venn diagramen mirabe sinetsiak garenik.

Ez esan sabelean utzitako zilarrak,
goiz-albetako arantzak, ez esan gure etxea, ez esan,
ez esan zenbat zer, zenbat hozkada gauak,
zergatik, ustez, neurea ez zaitudan.

Ez esan zure ahots hila baino gurago nuela
itoginaren elea,
zure ur mortuak baino zubi laxo arrotzak,
ez esan aliritzira ebaki dizudala bizitza,
merkezurrean saldu, zoro antzean, iragana.

Ez esan. Ez esan. Ez niri.

HUTSAREN BEGIA

Begia itxiko duzu ez ikustearren,
 kristaletik,
gaueko itzalak imintzioka,
munstro mukerrak,
deabru beltz eta otso beltzen aldra.

ARTHUR RIMBAUD

Ohitzen ari naiz keari ostatu ematen begietan,
etxeko gauzen durundia neure kabuz neurtzen.

Betazal hanpatuak, goiztiria.

Beharbada, bilduko banu behar adina arnasa
eri ez nagoela sinistu arte, beharbada
malko batek beste nonbait esnatuko banindu,
beharbada
azken aldi bat zure besoetan.

Ohitzen ari naiz hutsaren begia lepoan igartzen,
eguzkia mamurtzen inongo hesiei galdetu gabe.

Begi-niniak ase, goizkorri.

Beharbada, airean bizi diren orratzak lurreraino
baletoz mara-mara, beharbada
bezatuko banu zaunkaka dabilkidan egia, beharbada
makulu banitu egunero jaiotako gezur panpalak.

Ohitzen ari naiz esaten
ez nauzula maite, ez zaitudala maite.
Moi je ne suis plus ton amour, toi tu n´es plus mon
amour.
Horixe ikusten, horixe onartzen, benetan ulertzen.

JARDIN BOTANIQUE

Gauza orok darama bere baitan bere
 hilobia.
Beharrezkoa da jaustea
larri zauriturik borrokan.
Asko maitatzea. Asko sentitzea. Ilargia
 ikustea
gorantz egiten gau askotan
arima ilunpean duzula.

JOSE HIERRO

Joanesentzat

Halaber, ari naiz eskuak irekitzen,
esku hauek hosto koskatuak lakoak.

Egunen zikloa ez lotzeaz dihardut,
zuri ez kentzeaz atalase debekatuen argia.

Nasaitu ditut entziklopedia-hatzak
zu ernaia zarelako, haritza, masusta.

Nola azaldu lupetz bihurtzen dela hautsa;
legar taxutzen harkaitza; ozpin, mahatsa.

Txorikumearen pisua baduzu ozta-ozta,
nakarraren argi mehea harea artean.

Ez sinetsi, mon bijoux, behin soilik maite dela,
gainerako ereintzak itzulmina baizik ez direla.

Izan urarekiko joera; bide gardenak hartu aterpe.
Ohartuko zara inoiz lore higatuen etsiaz.

Ez dakit zer jardin uzten dizudan, semea.
Berde kamuts nahi luke zure udaberrian
kristalezko negutegi honen maketa hautsiak.

SALMOA

parentesi bat da nire gorputza
argibideak onartzen dituena
berrogeita zazpi urteko turmix bat da nire bihotza
kalatxorien moduan miau egiten dut
neure ezpainak haztatzean
part jaurti ditut portura zapata burdinkarak
ez zaitut nahi full time ez zaitut nahi full time
soilik you you you

zure esku handiei begira
zure aho maminari zure oreztei begira
ez du ardura hitzak bai ahotsak
zure bitsak zure gatzak zure esneak
badakizu ez dela merkea armazoiak bazterrean
uztea
badakizu azala zirtziltzea dakarrela ortozik ibiltzeak
lasterka nazazu lauhazka lasterkatu lau hankatan
adurra adurraren truke eta adurrean talko-hautsa

iratzezko habia bat egizu biontzat bada toki bat
basoan

non basurdearen oinatza non oskilasoaren kanta
non almendrak eta ardo zuria
non zure hatsa eta koadrodun manta
zure besoak txilarrezko bi hego gauzak esplikatzen
zu nire salan zu nire altzoan
zu min zaharrak sakabanatzen
zu zauri berria oinaze sor berriz hornitzen

aintza eta bakea lurrean
kale-kantoia jiratu eta batera
txori bat pausatu baitzait sorbaldan gloria
zure musu bat sorbalda biluzian egunsentian
hain handi eta eder eta on baitzaitut
ardagaia eta su-lama
gloria zu bedeinkatua zu eskerrak zuri ahuspez agur
oi neure erraldoi oi neure masai oi neure irlako moai

GERANIOAREN MINIPOETIKA

Jarraitzen dut sukaldean idazten
makarroiak edo hitzak egosi bitartean.

Beste etxe batean. Geranio bat leihoan.
Zurtoinak esku bat dirudi, zerbaiten eske.

Gertaerak paper-mozkin bihurtu zaizkit.
Tentuz sailkatzen ditut, urrun galdurik begirada.

Baina zer esango dizut minaz? Zuk zer diozu?
Minaren amuak tenk egiten dit samatik.

Trantze horretan aitortzen dizut dena:
magalmina eta argidura eta bitsaren loreak.

Mezuei gantza kentzen dihardut labanaz,
alfer-kinkallatik libratu nahiz ahotsa.

Badut erritmoaren sena, xehetasunekiko joera,
irudietarako gustua, emozioaz gogoetatzeko xedea.

Zer diostazu, oro har, emaitzaz? Esadazu
benetako bizitza aski den benetako poesia egiteko.

HAREAREN GERIZA

Ispiluak txirikordaturik,
norbera ezertan ezagutzea, hareazkoa izan.
ANA GORRÍA

HEGALDIA

Ama eta biok Parisera joateko ginela, gaixotu eta hiru hilabetera hil zen. Mundua erakusleiho lizuna iruditu zitzaidan: edonoren bistara nengoen, pasteltxo minberatu bat azpil parpaildunean.

Lagunen deiak bukatu zirenean, maletari begiratzen hasi nintzen, hortz-eskuila eta kulero berriak hartu, eta edonora ospa egiteak zenbaterainoko ahalegina eskatuko lidakeen kalkulatu guran.

Baina, seguru, amak deituko zidan, esanez aitari azido urikoak gora egin ziola, edo kardantxiloa kantatzeari utzita zegoela, praka berrien premian zegoela osaba. Lasai egoteko esango nion nik. Lagunduko niola analisietara aitari, emango niola gerezi bat kardantxiloari, erosiko nizkiola prakak osabari.

Ez, amak ez zidan deituko. Hilda zegoen. Katabuta zarratu aurrean azken musua eman nionean, ezer idatzita ez zeukan paper bat bihurtuta zegoen gorpua.

Horrenbestez, abiatu nintzen, bada.

Aldizkari bat zabaldu nuen aireportuan, hara eta hona begira, ea nor edo nor neuri so neukan. Atzean

solas eten bat aditu nuen, jakan zahi-printzak zeuzkan gizonezko batek eskuko telefonotik esandako berba maitekorrak: «Cette nuit-ci, mon amour... très fort». Ahotsak logela bat eta bi gorputzen itzalak irudikarazi zizkidan, eta gorputz haietako bat neurea izan zitekeela.

Busean eraman gintuzten hegazkinera. Izerditan hasi nintzen berehala. Gaueko zaparradan, hegaletako argiek ginda bustiak ziruditen. Gogor oratu nien heldulekuei. Haize-erauntsiek atximur egiten zidaten tripetan. Kalatxori izutuak etorri zitzaizkidan gogora.

Ekaitza denean kalatxoriek barrualdera jo eta histeriaz egiten baitute karranka, olatu zakartuen lurruna lumetan jasan ezingo balute lez. Neuk ere kalatxorien moduan egin gura nuen txilio. Izua ematen zidan hegaldiak: berdin antzean, eguraldi txarreko gaua zen amak utzitako hutsunea.

Baina ametsetan bakarrik egiten nuen nik garrasi, ametsetan nintzen bestelakoa: itsas txoria arraina akabatzeko haina. Amak ere ez zuen sekula garrasirik egiten, isilik geratzen zen, berbak irensten zituen begiak gortinetan josita. Hil ere isilik hil zen, biriketako likido kutsatuarekin itota. Orain neu nintzen bi-

zitzaren moko zorrotzean hatsik gabe itotzen ari zena.

Haizeak balantzaka eragin zion hegazkinari eta erraiak ur bilakatu zitzaizkidan: sabela, hesteak, maskuria. Txepel sentitzen nituen garunak, gutxi egindako arrautza-nahaski baten antzera. Belaki bat behar nuen amari izterrak garbitzeko; kremaz igurtziko nizkion orpoak, izarek eragindako narritadura gozotzeko. Ez, ezin: ama hilda zegoen.

Izterretan behera likido iluna isurtzen ari nintzela ohartzearekin batera, konortea galdu nuen.

Denboragarrenera, zurrumurru bat entzun nuen. Hegazkineko pasilloan etzanda nengoen. Alboan makurtuta, azafata bat airea ematen ari zitzaidan abanikoaz, eta ezpainak hezetzen gaza busti batez. Simaurrez beterik lez sumatzen nuen gorputza. Ahokada bat bota nuen.

Jesartzen lagundu zidaten, bizkarra almohadoi batean bermatuz. Bidaiarietako batzuek burua jiratu zuten, mokanesa sudurrean, muzin. Jakan zahi-printzak zeuzkan gizonak zerbait eman zion azafatari: kamisoi bat, paparraldean Ama Birjinaren dominatxo bat zeukana, neure amarena. Azafatak zutuntzen la-

gundu eta WCra eraman ninduen, aldatzeko eta makillatzeko.

Trauskil jaitsi nintzen hegazkinetik, mengeldurik orkatilak. Jakan zahia zuen gizona zain neukan eskailerapean, lurreratze-pistan.

—Ça va, Mitxu?

—Mila esker mesedeagatik —esan nion.

—Autoa daukat aparkalekuan. Etxera eramango zaitut.

Besotik helduta abiatu ginen autora, pauso txikian. Ordurako ez zen zaparradarik, zirimiria baizik, baina ur bakoa: milaka lore more txiki jausten ari ziren zerutik potxingoetara, ekipajeak garraiatzeko orgen artera, taxien gainera, nire aurpegiaren kontra.

Halaxe konturatu nintzen zerbait gertatzen ari zela: lore moreengatik, eta ume sentiarazten ninduen esne-usaina gailendu zelako inguruan.

Autora sartu nintzen. Ama zegoen atzeko jarlekuan, irribarrez. Musu eman nion, pozarren. Berak besarkatu egin ninduen. Hortik aurrerakorik ez dut oroitzen, gelatinazko aintzira batean murgildu nintzela ez bada.

INURRIA (1)

Bilbo-Donostia noranzkoan,
autobidean eskuinetara: ospitalea,
hamar solairu, anagrama urdina saihetsean.
Hortxe itxaron diot heriotzari.

Hosto bat jausi da.
Inurriak ez du paisaia aldatua ulertzen.
Konbultsioz higitzen da
giltzaz bizituriko jostailuak bezala.

727. GELAKO BESAULKIA

Esan niolako ez zitzaidala
727. gelako besaulkia ahaztuko,
tristuraz egin zuen irribarre.
Plastikoz tapizaturiko etzangarri hartatik
oinazearen xehetasunei behatzen ahal nien:
erizainei deitzeko tinbreari,
ur-botilari mahaitxoan,
larrosa gorriari eta galburu artifizialei
(prohibido traer a esta unidad flores,
plantas o cualquier especie vegetal
por el riesgo de producir alergias),
abanikoari, betaurrekoei, estanpa bati,
gazei eta kartoizko palanganei,
(kronometroak ekartzen zizkidaten gogora),
oin hanpatuei bata berriaren azpian narras,
hatz zurbilei sueroaren makilari sakaka
gurutze bati lez.
Eskutik helduta egoten ginen arratsaldeetan,
ni besaulkian kuzkurtuta.
Halatsu, goizaldeko orduetan ere komunetik
bueltan,

korridorean leiho beltza baizik ez zenean,
besaulki hura nuen aterpe,
beldurra maitasunean diluituz
sentimenduak kategorizatzeko.

GALDERA

Gelaz aldatu zuten
ostegun euritsu batean.

Armairuan 2 zenbakia letra txarrez idatzita.
Orbanak hormako paperean.
Bular gainean armiarma bat heriotza.

Zeharo puztuta zeuzkan hankak.
Derrigortu ezean, ez zen mugitzen.
Bizitza elur lohia lokietan.

Aurretiaz barrundatu genituen
katabut gainera amilduko ziren lur-zotalak.
Begiak estali zituen, inkesaka.

Galdetu nion: zer egin nezake
zure burezurra salbatzeko.

HOTZAREN ORDUA

Goizeko lauretan antzigarrak tu egin dit begietan.
Ezpainak almohadan ur-negar beltza.

Galtzerdiak ipini dizkiot. Oinak bero ditu oraindik.
Irribarre egin didala begitandu zait.

Hileta-etxekoek txirrina jo dute zortzietan.
Ez dut berriz gorputz hau ukituko.

Emazkidazue bendak eta karea, ukenduak eta
terrakota.
Estali gorpua gatzez.
Erraiak erauzi behar dizkiogu lehenik.
Egin diezaiogun, hortaz, zulo bat saihetsean.
Ekarri ontzi bat non odola isuri.

Larrosaren eta galburuaren andrea dugu hau.
Presta dezagun merezi duen bezala.

AU CLAIR DE LA LUNE

Zeruan beste itsaso bat
hodei marotak kobrezko uharritza
eguzkia obulu glaseatua arrasbeheran
pinudian erroi baten karaka kaioa
langarra aparra belarraren uharetan
neguko zuhaitza arimaren hezurdura
ne me quitte pas

orgen karranka olatuen zartada itsasbeheran
ilargia mamitzear hondartzan ezunearen soslaia
haizeak ezer ez dakar
ez da erlojuan hogeita bosgarren ordurik
urrats gorrak tertziopelo ahaztuak niaren hartzidura
gau hutsean txalupen txikotak lutuzko zintak
ne me quitte pas

izarapean ireki zaizkit mila ofiura
listuzko ibai solido batera luzatu dut pausoa
eta jausten banaiz eta jausiko banintz
zalantzarentzat tokirik hemen ez dago

gorputz izoztu honetan aupatzen naiz desberdin
okarana errea ilbete gorria
ne me quitte pas ez nazazu utzi ne me quitte pas

ISILTASUNAREN GEOGRAFIA

Hauek ditut isiltasunaren mugarri:
hozkailua, harraska eta labea iparrean,
arasa eta kaleko atea ekialdean,
trastegela mendebaldean,
eta euskal paisaien egutegia hegoan.

Erdigunean hazten naiz, arbola gardena baldosa
batean.
Baldosapean leize bat hedatzen da,
mintzairaren zeinu zurtzak negu-lore dituen
desegitura.
Mataza bat gomutarazten dute, pintore baten
kapritxoa.
Haizeak burua eztitzen badit,
sustrairen bat azaleratu eta gora egiten dit altzora,
bularra eman diezaiodan.

Sukaldeko isiltasun goizekoa.
Fertilitatearen geografia.

INURRIA (2)

Nire bertuteak aldizka haren berri izatearen truke:
dei bat, irudi lauso bat ispiluan,
edozer telekinesiaz mugitzen.

Larunbatero joaten naiz kanposantura.
«Egun on», esaten diot, «neu naiz, inurria».

Lixaz karrakatzen dut euriak erdituriko liken
horizta.
Etzan, eta marmolezko izenak musukatzen.

Altzifreek gorantz hurrupatzen naute;
harriek beherantz xurgatzen.

Odolezko hariak daude belarretan.
Hilobiaren alde banatan,
Ilargia eta Eguzkia neuri begira.

HOBIA

Jaio nintzen Bilbon, 1933ko ekainaren 5ean
eta Lekeition hil, 2002ko urtarrilaren 28an,
68 urte nituela, gazte samar, hiru hilabetean.
Obarioetako minbiziak traizioz eraman ninduen.
Hori-hori paratu nintzen, azkura jasanezina azalean.
Gibela hainbeste loditu zitzaidan
ezen zunda bat ipini behar izan zidaten bularpean,
zornea kanporatzeko.
Lasaitzearren esaten zidaten
kamisoia zikintzen zidaten orban nabarrak
betadineak eginak zirela.

Baliotzat izan nituen nire azal fina eta izaera.
Josten eta brodatzen ikasi nuen:
inizialak kirruzko izaretan, bainikak manteltxoetan.
Letra txikia neukan arren, berben amaierako
buztanek
beti salatu zuten nire abizenaren adore zuhurra.
Matematikan abila nintzen txikitan.
Martiri eta santuen bizitza antzeratzen irakatsi
zidaten.

Ez nintzen izan sukaldari aparta,
baina ez nuen parerik flan, kroketa eta
bizkotxoginean.
Denda bat gobernatu nuen: oihalak, jantziak eta
beste.

Gaztetan argal-argala, titibakoa nintzen
(horregatik ez ninduten mutilek dantzara ateratzen);
ama egin nintzenean, berriz, esne ederrekoa
suertatu
(lagunek, ostera, pelargonez loditu zituzten umeak).
Ezkondu artean hankak estutzen ohitu nintzen,
eta grinaz aitaren egiten
Scarlett O'Hararen zinak oroitzean.

Beltzez ezkondu nintzen,
lili-sorta eskuan, mantelina buruan.
Itsasgizona hartu nuen senartzat.
Oginoren egutegiak, beraz, balio gutxi guretzat.
Lehorreratzen zen bakoitzean genuen ezti-gaua.
Kanpaina luzeetan argazkiak bidaltzen nizkion,
hogeitik gora berrogei urtean.
Denetan utzi zituen ezpain-markak, malko-arrastoak.
Maite nuen neuk ere, deabruaren jenioa zuen arren.

Batzuetan arrazoi barik sumintzen zen, kaka
zaharra!
Baretzen zenean, besarkatu egiten nuen
eta barka eskatu. Zenbat erregutzen nion, negarrez,
beragatik, neugatik, ondo jakin barik zergatik.

Bi erditzek odolpikoak utzi zizkidaten uzkian betiko.
Semea izan nuen; gero alaba.
Batari onena eman nahi izan nion, mutiltxoari.
Nekez hartu zuen bizitzako martxa. Ondo ote dabil?
Alaba hazi nuen ametsak zaintzen diren eran.
Erraza izan zen, begia galdu zuenean izan ezik,
edo bere abortuen garaian.
Zotinka egoten ginen biok telefonoaren alde
banatan.
Laster topatzen genuen kontsolazioa,
berak koadernoetan, nik neure lanetan.

Garbi izan nituen nire zutarriak:
etxekoak jagotea, aurreko eta osteko;
legeak betetzea, zeruko nahiz lurreko;
obligazioa jartzea debozioa orduko.
Belar-egoskiek laguntzen zidaten loak hartzen;
geroago pilulak behar izan nituen.

Zein ote da andre jasekoaren saria?
Esku zabaletan urre gorria:
bitsa eskuetan eta bits horren zauriak.

Orain ilunpean nago. Eskeleto bat naiz,
traje-txaketa ona eta blusa satinezkoa,
zurezko gurutze txiki bat altzoan,
feltrozko larrosa bat eta galburuak eskuetan,
ospitaleko azken opariak.
Kotoiz butxatu behar izan zizkidaten sudur-ahoak.
Nire alabatxoa hitz eta pitz ari zen
jendearen samin-agurrak hartzen,
eta bisitei azalpen gehiegi ematen, xehetasun lar.
Beti izan da formalegia, hainbesteko gizalegez
hezia.

Hor goian badira granitozko aingeruak,
lauburu zizelkatuak, koroa zimelak, ikurrina.
Euriak tarras daramatza krabelin-pipilak,
harri-kirriak, letra urrekarak, oinatzak.
Hemen behean ez dago ezer.
Faltan ditut lagun minaren kontuak,
dendako apalak, senarraren zurrungak, alaba.
Iloba hazten ez ikustea izan dut zigorra,

«amuma» zelan deitzen didan ezin entzutea.

Alabaina, ez naiz kexu.

Egunsentiaren zain, bakean natza.

UMEZURTZA

Zure alabak klera txupatzen du.
Zure alabak zomorroei irakurtzen die.
Zure alabak hormaren kontra igurzten du aurpegia,
umetan beldur zenean zure jertse samurrean lez.
Harearen zuloak josten ditu gauean,
hotzaren garroak lisatzen.
Egunez bere enborrari tiraka ibili dabil,
itsu, mozkorraren muxuaren antzera.
Zure alaba lixa-paperez arazten da.
Zure alaba, porlan eta lainozko trukutza.

HUTS-MINA

Sekula ez berriro elkarrekin
besarkada baten kaiolan.

Baina noizbait, ustez,
pasatuko da hau guzti hau.
Badakit lurpean zaudena.

Zure bisitak gauero
irensten dizkit ametsak.

OSTERA LABURRA

Bidaiatik itzulia zela egin nuen amets.
Sofan eserita nengoen eta
ama heriotzatik zetorren, maleta eta guzti.
«Zer moduz zaudeten ikustera etorri naiz.
Arduratuta naukazue. Ganoraz konpontzen zarete?»

Zeharo nahasi ninduen maletekin ikusteak.
Zer bidaia-klase zen hura!
«Zelan otu zaizu etortzea?
Tira, zoaz lasai», nik errieta.
Baina ez zen alde egiten ausartzen.
«Neuk beste inork ez zaitu ikusi.
Zoaz betiko. Aprobetxatu aukera», eman nion adore.

Eskerrik asko esan zuen.
Geroztik ez da bueltatu.
Etxeko pasilloan dabil, hala ere, haren geriza.

KLUBA

B.rekin egin dut topo kanposantuan (neu baino zahartxeagoa da):

—Orain dela hamabost urte etortzen naiz, zapatu guztietan. Lotan zegoela hil zitzaidan semetxoa. Batbateko heriotza. Fabrikara joanda nengoen ni. Beste semea ohartu zen, zazpi urtekoa, esnatu ezin izan zuenean eskolara joateko.

K. ezagutu dut plazan (neu baino gazteagoa da):

—Alabak jolasten diren tokian daude gure amaren errautsak, txakurrak pixa egiten duen txokoan, arrosondoen artean. Kanpora eta barrura ibiltzen naiz baserriko zereginetan. Berba egiten diot, edozer. Osasungarria da hildakoekin jardutea, geureak badira, jakina. Berba egiten diot, euriak nire begietan sustraiak bota nahi dituenean. Eten barik berba, paisaia mutua amaren altzoa bihurtzen denean.

Baietz egin diet buruarekin, eta Atxabalerako bidea hartu dut burumakur, etxeak har dezan nire eskea. Ze, entzun, ama, behar zaitut hondartzan ikusi lasterka, magia egiten denborarekin, eta ni pijama hutsean errepidetik zuri so, olatuen merengea begi-

ninietan. Amatxu, film hartako oreinkumea nauzu: prest naukazu zure penak ostentzeko betaurrekoak lortzeko. Ama, hegazkin batek urrun daramatza evax, belcor eta margaret astor kargamentuak. Ama, behar zaitut barreka ikusi hondartzan, eskua eskuan, eguerdi gordinean.

L’ART DE MOURIR

Hatz erakusle bat ni seinalatzen.
Epaile bat nire bekatua idazten:
«Lotan zegoela hil zen.
Hil zen bakarrik utzita».

Erromero-alkoholez egurasten nion gela,
mesanotxea botikaz eta albistez hornitzen,
baina birika ahulen karraska urtsuak
uxatu egiten ninduen aldizka.

Oin-puntetan hurbildu nintzaion bezperan.
Honela joango balitz, egin nuen,
bere estiloan, gerrarik eman barik,
hain Ane, hain ama eta hain santu.

Ireki zituen begiak, egin zuen irri,
morfinaren jabala neuri eskaini.
«Zeu zara nik gehien maite dudana»,
esan zidan, «zeu, laztana».

Neu ninduen maiteena, neu nahiena;
baina ni lokartu egin nintzen beste gelan,
ume mizke kikil mainatia,
bera okadaka inor gabe ito zenean.

Ez nuen ikusi ez izar-hautsik,
ez oihal zarpailik zeruetara igotzen.
Tentelduta zegoen alaba, tupustean
deitura bat inon txertatu ezinik: ama, ama, ama...

Gaur, orbain horizontalen egunetan,
eskuak mahai gainean jartzeko sasoian,
ezin atzen ordu haietako sasiak garbitu,
baina etorri nator neure loreen galdez.

Oinei urlasterrean eusteko ordu honetan,
txori herbala ni, hegoak dar-dar,
haren gerizari xuxurlaka. Eta deiez:
mesedez, mesedez, mesedez...

L’ART DE VIVRE

Hamabietako kanpaiek abisatu didate, hara hor ba,
ahaztu egin zaidala zugana igotzea. Lastima.
Estimatua zenuen beti maiatzeko lehen domeka.

Seinale ona da seguru, urteak joanda,
kontuan izanik ia nire argazkia sartu nizula
hilkutxan.
Nola edo hala zurekin irautea zen kontua.

Eman ditut zure arropak, eau de rochas aztarnetan
zu igartzeagatik luzaroan erabili eta gero.
Urteotan izan naiz zaharrago, tristeago, gizenago.

Obariotik obariora iragan zenidan marka:
erruaren igitaia, hosto latz eta samurren paisaiak,
ondare iragangaitza, monologue intérieur.

Zer diotso orain eguzkiak sukaldean isiltasunaz
idazten ari den andre honi, munduaren nekagarri?
Nahi dudanetik ezer ez dut, momentu hau salbu.

Zure ilobak surfean dihardu Karraspion,
ile luzea darabil, baxua jotzen, ez du ezer kontatzen.
Neguko haizeak badakizki sobera etxeko gauzak.

Jar dezadan begi akituon lausoa irla osteko lerroan,
urezko haranetan kitatuz hartzekoak eta zorrak.
Zer da, ba, heriotza, distantzia hau ez bada?

ZAPITXO INTIMOAK

Kuzkurtu egin zinen,
nire baitan kukutu, fetu bat bezala.
VIOLA FISHEROVA

GAUA ETA GATZA

Egunen batean esnatuko banintz
(kasualitate hutsez)
zure besoen artean,
ez presarik izan, ez begirik ireki.

Emadazu pa masailean,
ez dira-eta urrun izango
huntzorria, lore apartsuak.
Emadazu musu eskuekin, itsuka.

Garbitzaileen kamioiak eramango du,
benetako zaborrekin nahastuta,
gure gauaren zelofana.

Gatza emango dizut nik gosari, urre zuria.
Gure bihotz pisuek flota dezaten, arindurik,
ezinaren ur erabilian.

ESKUA

Zure eskua
eguzki txiki bat nire eskuan
amildegiaren ertzean
lasai hemen naukazu dio
metro erdi honen beste aldean
ez dut nahi izango zuk nahi ez duzunik
nahi izango dut zuk nahi baduzu
kirikino bat daukat hotzikaraz sabelean
zure eskuak goratzen nau errauts artetik
zeru-muga berria
ogi-mamia
bakardadearen zubia
zure eskua

ALUKO BILOA

Igandea apiril pozoituan.
Aitortu zizun, zure eskua bere eskuetan hartuta,
prest zegoela zu besarkatzeko,
jartzeko zeuk tokia eta eguna.

Hostoak jolasean zebiltzan terrazan.
Ez zintuela maite, hori esan zizun,
baina desio zintuela
eta bazekiela zer den basamortua.

Biluzik ikusiko zaitu gaur lehen aldiz.
Belaunak tolestu dituzu, burua makurtu.
Artaziak eskuan, dudan zaude.

Ebaki duzu bilo pixka bat.
Aztertu dituzu ezpain jada hezeak.
Ile zuriak, kanak.

Atea ireki duzu gero.
Sartu zara logelan.
Lore zuriak, kalak.

KALADUN LOGELA

Astebete da hizketan aritu zinetela
hotel bateko logela zurian.

Zure hatzak haren hatzak birpasatzen,
haragi zati horiek munduaren mastak bailiran.

Koadro handi bi zeuden gelan, bietan kalak.
«Gogoratu, gero gogora dezagun», agindu zizun.

Gaur zerbaiten bila miatzen dituzu eskuak.
Eskuak aztertzen deus ere aurkitu gabe.

Zehatz gogoratzen dituzu kalak,
kala-sorta zuri estuak, ordu hutsen erretratuak.

BARATZEKO DEIA

Zatoz, baratzean itxaroten nago.
Izan dezagun arrasti luze bat.
Bada mahaian zer jan, zer edan;
erleak erne hirusta artean;
limoiak eta daliak txabola aldean;
itzala parrapean, besarkada bat bezala.
Palmondoa eta putzua oasia ditugu;
zuretzako denda bat da nire gorputza.
Zatoz, ortuan nauzu zain.

ARRAINAREN EGARRIA

Ez negarrik egin. Har zaitzala xeruenak,
zure izenari bainarik aterako ez dionak,
olatu-erdi zer den dakien batek,
almibar bihurtzen zaituen hitza esan diezazunak.

Edonork balio dizu. Edonorentzat balio duzu.
Merke eskaintzen zara.

Atzo bere urtebetetzea.
Eulitzar bat pausatu zen zure leihoan.
Ez du alde egin oraindik.
Hori ere zure epelaren apopilo.

Barikuak eztanda egin du alkitranezko burbuilaz
lur toilak zapalduz zure tripetan.
Otso batek arbia errun zizun bular artera,
fosforozko pusla barnehutsak.

Eta zu hor. Ahoa ireki, ahoa itxi.
Arrainaren egarria zurea.

AMETSETAKO URA

Ura telefonoan zure ahotsa.
Edalontzi bat dago mesillan.
Hari begira hartzen nau loak.
Ohea urak hartzen du.
Kamisoia blai, banoa
itsasargi baten pareraino,
non zu zauden, niri email bat idazten.
Subject: «Ura, mesedez».
(nire ahotsa ba ote da zuretzat ura?)
Eskua luzatu dut.
Edalontzia jausi da.
Kristalak, zoruan, zure izenaren errepika.
Bustita esnatu naiz.

HITZORDUA

Hurbildu zara,
sagarra eskuan.

Muxu nik sagarrari,
belauniko, hankei besarkaturik.

Metal-ura tuan,
ezpainen urrakada.

Esaten dizudan hitza
eta inoiz entzuterik ez dudana.

Murmurio bat, trago zuria,
iruntzitara jartzen nauen zure hazia.

Amodioa zera denean:
argia piztea gela huts batean.

BISITA

Izan gabe ere hemen zen,
gosearen zelaian. Baina etorri zen.

Arratsalde xaloa hondartzan:
konpotazko hodeiak haitzen parean.

Irribarre zuk jendeari ur ertzean,
gaixo terminalaren fedeaz.

Ilundian afaria baratzean. Lagunak.
Kalak mozten zenbiltzan, mahairako.

Hurbildu egin zitzaizun
eta isilka esan: «Hara, gure loreak».

Masailean musu bat eman zizun, alai.
Eskuan zenituen artaziei so geratu zinen zu.

Halakoxea da bera, alaia.
Halaxe onartzen duzu, ermitauaren burujabetzaz.

MAMUAREN ESKEA

Hau maitasun hau, haize-larrosarekin dantzatzen den maitasun hau, datarik gabeko maitasun, itzalez bilbaturiko maitasun, maitasun hain traketsa, maitasun kontrabandokoa, gurpil gaineko, etxerik gabeko, mahaian prest jarritako, ordua jarritako hau maitasun hau.

Hau maitasun hau, maitasun hau maitatze hau, lerda-maitasun hau, sorgin-maitasun hau, puta-maitasun hau, alfonbra lako maitasuna, itsulapikoa eta isuna, maitasun beldurgarria, maitasun gozagarria, etorri datorren maitasun, joan badoan hau maitasun hau.

Hau maitasun hau, beste alde honetatik maitatu behar hau, letrazko maitasun, bitsezko maitasun, saretik zelataturiko maitasun, funanbulista mendiko botak jantzita, eskalatzailea tulezko arnesa jarrita, maitasun kausa bakoa, maitasun ondorio bakoa.

Hau maitasun hau... Barkatu, arren, hau maitasun mamu hau.

HATZETAN GERATZEN DENA

Autoa. Bostak eta hogei. Eguzki-galdatan. Hatz bat miazkatu dizu. Begiak itxi eta ireki egin dituzu. Ireki eta itxi egin duzu ahoa. Arrain normalek bezala. Koloretako arraina zu, bilo zuria aluan. Busa. Seiak laurden gutxi. Aire egokitua. Hatza zeure listuz birpasatzen duzu. Haren keinu zalua metabolizatu nahirik. Organiko egin nahirik haren lika galdua. Arrain kutsatuek bezala. Arrain sorgorra zu, fuela maskurian. Ekaina, arraina.

EOLIA

Mitoak dio Eolia lorez beterik zegoela.

Hostotsu irudikatzen dut uharte hori, nire pubisa lez,
baina alua mehetu zait jada, bular-muturrak zurbildu.

Eolia jitoan omen zebilen hara eta hona,
sekula inor bertara ez itzultzeko eran.

Ni ere banaiz Eolia bat; irrikaz, ordea, aurki nazazun,
betazalak argiz apaindurik, ahoa zeure gustuko esaldiz.

Oker dihardut, baina, oker dihardut.
Ez naiz Eolia eta ez nabil nora ezean.
Zu ez zara nire fruituz elikatzen.
Zuk ibilitako urak ez dira itsaso eskerga hauek.

UDAKO AFARIA

Aurtengo udan belarritakoak galdu ditut auto
batean,
aurrena bat, gero bestea, biak gau berean.
Biharamunean neukan ontzi baten bela
sabelaren ordez; eta izenaren ordez, tatuaje bat
(zeruan diseinatua, infernuan bedeinkatua).
Baita urrakada bat ere titi batean.

Ilargia aldatu egin zen gauerditik laurak artean,
ardotik zilarrera: zisku bat, erdia plasma, erdia
nitrato.
Kristalak lausotu ziren, oilarrak birritan jo zuen,
atzazal bat apurtu zitzaidan, ezpainak denak zolitu.
Nire sosten berria, enkajezko txotxongilo gorria,
ezker besotik zintzilik denbora guztian.

Gaztetxoa naiz, eta laburra da bizitza.
Haragia murtxikatzen dut, jatun,
neska handi-handia egiteko.

PLAISIR D’AMOUR

nire gorputzaren gatza bero busti zuri izara artean
nahi nuke gatza izan zure elurrean
gatza zure ur gezan ura zure egarrian
gatza izan ezerk ase ez zaitzan

pelikano beltzak mokoa aluminiozko izurretan nola
halaxe barneratzen naiz zure urloan zer jan bila
mezu batekin asebetez memoriaren arrainak
astebetez
state streeteko buganbileak kale kareztatura nola
halaxe ni orriz orri gorri zure gatzagara amiltzen
eguzkia hatz mehez korritzen bizkarrean
zure gabezia zintzurrean
kaian haize-larrosa bat ni tente haren erdian
merkatuan gizon bat erramu bat eskuan kalak
kalak kalak kalak enchanting moment hoteleko tea
chacun pense ce qu’il veut
c’est la poésie même et rien de plus et rien de moins

trenek gaua asaldatzen eta zure sms-ek tupustean
loa

nekatuta nago baina
musu bat ematera joango nintzaizuke
bat bakarrik laurehun eta bost
urratsak moketan txalupatxoen koadroak hormetan
jengibre-krema aldaketan kosk kosk kosk kosk
bazekitenez begiek begien itzalak leitzen
oroi zaitez hatsaz eta lerdeaz
eta ez nazazu begiratu histuraz
gorde ezazu ihien marmarra laranjondoen brisara
gurea ez zen hiriaren aterpean laztanen hotsa

sous la lune de collioure je rève avec un loup
qui joue à ma poitrine et se baigne dans ma soupe
oh mon cher ami du regard caressant
le voyage jusqu’ici assez interessant
jusqu’ici jusqu’ici jusqu’ici stop

AMETSETAKO GATZA

Euria ari zuen nire ametsean, eta biok
gindoazen korrika asfalto gainean
(beti halaxe gu, pare bat pauso atzerago ni).
Semaforoak itxi egiten ziren nire parean juxtu;
zuk, jiratu eta apur batean itxaroten zenidan,
liburu piloa besapean.
Izerditan ni, gabardina morearen barruan
(erosketa txarra, josturek tira egiten didate)
eta kale-argien dirdira laranja zoruan, esanez
«baietz burua apurtu»
eta ni zuri, buruaren keinu batekin, esaten
«segi, nigatik ez aldatu agenda»
(are gutxiago bizitza, jakina).
Nire zapata beltzek, aldapan behera,
bi zerraldo ziruditen.

Ahots bat entzun nuen orduan.
Debekatua zen arren atzera begiratzea,
egin egin dut betertzetik.
Gizon bat zen, urazalean oinez, ekaitza baretzen.
Txalupa bat, sareak gainezka.

Eta urrunago, neure etxea sutan.
Herioaren putz kiskalgarria hauteman dut.

Eta Itun Zaharreko Lot zenaren andrea bezala
geratu naiz Sodomako muino abailduetan
(orube batean, lata eta arratoien artean),
gatzezko estatua bihurtuta,
desegitear euripean, baina taupaka.

MAHAI-JOKOA

Berbak aurrezten dituzu, ekintzak lehenesten:
ez dakizu esaten eta ez dakizu egiten.

Beti erdi jantzita laztandu behar hau ez da milagro,
egunero mahai-joko bat bada bizitza.

Zu eta biok topatzen garen gunean ez da zin-hitzik.
Apustu egiten dute, etsirik, zoriaren tximeleta
gangarrek.

ANTENA

Astiro errepide galdu hartan, autoan antenarantz,
muinoan txilar haragigabetua eta
zementu-bloke bat non gorputzak bermatu.

Haren lepoak atxiki ditzake zure musu gris guztiak
nola hareazko zeru horrek hodeiak oro,
argirik gabe, izenik gabe.

Miazkatu, laztandu, dena da urrun.
Negua, 16:00ak, zure burua haren sorbaldan,
uste onik gabe, barrerik gabe.

Beti geratzen zaio erlus lehorra begietan,
narrasti tristeen ezkatena lakoa,
otso larrutuak isuri bako malkoa.

Otoi dagizu eman diezazun musu hatz-puntetan,
nahikoa da pa bat atzamarretan, funtsezko ikurra
agur esateko une zehatz horretan.

UNE DANSE DE FOLLIE

Gaur ere hartu dizkizu eskuak. Oraingoan patu onik ez leitzeko. Men egin diozu haren nahiari. Ez da gure ahala nor maitatu.

Gardena da sala, gardena dena. Txilioka otsaileko eguzkia leihoetan. Sofak hartu zaituzte akuario baten gisa. Zaude, gauden. Azken habitat bat dauka mindurak.

Betazalekin laster arnastu duzu izerdiek hedaturiko bafa. Gero botaka egin duzu, Mirentxu: lorazepam, ipurtargiak, ardo-negarra.

Zokoz zoko zabiltza zulo bila. Uluka zulo bila. Errezel artean zabiltza ate bila. Uluka ate bila. Dantza itzazu artaziak eta mihia, triskatu josturak eta burbuilak. Hil bitsa.

Maite ez zaituelako nahiko zaitu. Gurtuko du zure egikeren segurtasuna. Écoute-moi, tu le sais bien: je ne regrette rien. Hutsetsiko mugetan soilik leher litekeen bizia, musu abisalen tinta, hau guztia.

Itxi egin da ostatu zenuen eskua, itsaspeko leizea argiaren txerari bezala. Zerk eusten zaitu orain, zure

oin astunek izan ezik? Nork esango gozo haren izena, zeuk esaten zenion eran? Milaka espora antzu hegaldaka goizero, hiritik herrira, ezdeusak.

LABURPENA

Ez diogu eman munduari bueltarik.
Mesanotxean ez zegoen saririk.

Telefonoa joka bulegoan.
Usoak urrumaka espaloian.

Zu maitatzea zen izotz artean saltoka ibiltzea,
haize zorrotzaren deiei baietz, baietz esatea.

Antsiatzea urmaelen bat-bateko krakada,
animalia-larrua glaziarren oinetan pozik uztea.

Eta beste antartikan, tipula nahiz arima zuritzea,
geranioari eta bizitzari lurra aldatzea.

Itsasbeheran azaleratu egin da uharritza,
balea zaurituz bete zaizkigu ametsak.

Ospeldurak limoiz igurtzi ditut zure hil-beilan,
soinekoak urratu eta erauzi ileak.

Zer hartu opari haietatik? Gabetasuna eta
zure bihotzak buruari ostutako eromen leuna.

Orain loratzen ari zait azal hauskara:
ez zara jai, ez zara gai, ez zara zor, ez zara inor.

Ahanzturak milikatuko dizkigu erraiak.
Elipsien puzzle bihurtzear dugu memoria.

Ez diogu eman munduari bueltarik.
Ez nizun, haatik, eskatzen nik askorik.

Eguneroko deia, guraizan sinple hori,
bide bat heriotzarantz, giltzarik eta obulurik barik.

ZAPITXO INTIMOAK

Zure atzazalekin itzartu, eta barre egin zeu
zarelako.
Geratuko nintzateke zurekin, jakitearren
nola altxatu ohi diren lau eskutara gauaren aiurriak.

Izaretan buelta hartu begiak itxita, besapeak irekita.
Sorbaldetatik hara antzerki-oihal sinplea da dena;
monosilaboak paisaian zu, ni.

Algak eta lastoa jan zure bularretik,
hatz bat nire zilborrean duzula
galga txiki bat lez, itsu-makila bat lez, arkatz bat lez.
Ahal banu lo egin eta zu gorde,
abestu eta igeri egin aldi berean.

Zure izena hartu begiekin,
agurraren odola garbitu zapitxoekin,
adurrez egin didazun arropa airean lehortu.
Hala eta guztiz ere, edonon eta edonoiz,
fereka bat lortu.

ENTROPIA

Zeta-harrak aurkitu ditut limoi-arbola ondoan. Euren haria kiribildu dut hatzean, soineko berri baten hasikina balitz lez. Armiarma-sare hautsi bat dago putzu gainean, luma bat kala berrietan. Elkarrizketa isila sumatzen dut haien artean. Dena lehenago bezala, eta dena hain bestela. Aldaketak infinitesimalak dira.

Bitsaz pentsatzen dihardut. Neure burua irudikatzen dut itota itsasoan, bainuontzian, errekan, odoletan ezpainen ertzetatik... Urtinta da jario hori, zer bestela. Tinko oratzen diet mundua ikusteko dudan begi bakarrari, hilobi bateko egonaldiei, lurmenean durduzatzen diren agurrei, gorputz honi, ahotsaren oreari, borondateari, oreka kimiko honen konstante guztiei. Taxidermiarekin konpara daiteke ariketa hau.

Hodeiak berdintsu lekualdatzen dira. Iltze batez M.A. idatzi dut lurrean. Etorriko dira berriz euri zeharrargiak. Telefonoak jo du. «Plaisir» deitzen dit norbaitek, «Plaisir, non zabiltza?». Paradoxa aipagarria, pentsatu dut barrezka, liburu honetako lehenbiziko

poemaz oroituta (Pleasure da nire perfumearen izena). Deia moztu dut, erantzun barik.

Inork ez du etorri behar izan nire hezurren bila. Inork ez ditu ikusi nire hegatsak ihartzen. Gauak zirenean txatarrezko gurdiak, intsektizida-sunda. Egarriaren zurdak berdindu ezinik burua alde baterantz zintzilik nuenean, marioneta.

Mahats-aleak hozkatuz nagoen artean dator gaua. Amilotxa horma gainean txistuka. Olatuak ditut gogoan. Azidoen eta gatzen garapena. Hibridazioa: ardo eta errautsena. Entropia. Etorri da amodioaren tolesetan. Taxutu da gorrotoaren kerruetan. Eratu da galdemenaren magalean. Gorpuztu da ezaintzaren ispiluetan. Zorutik hazbetera ibilita, nora ezean. Hegan jaurtikirik zapatak airean. Molekulei mugagabe matxinatzen utzita. Errenuntziorik egin gabe ustel-usainari.

Nire itzalak ez nau ukatuko. Poesiak maite nauela dirudi. Koaderno hau itxi dut 2010eko uztailaren 4an, 20:50ean, igandearekin.

Min itzela dut eskuetan.